Indianoa XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzan

Ana M. Toledo Lezeta
Deustuko Unibertsitateko irakasle titularra. Euskaltzaina

XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzak nolako indianoak aurkeztu zituen aztertzen da. Lau egilek kontatutako istorioetako osagai dira: Tx. Agirreren *Kresala*n (1906), J.M. Etxeitaren *Jaioterri Maitia*n (1910), R.M. Azkueren *Ardi galdua*n (1918) eta J.A. Irazustaren *Joañixio*n (1946) topatzen dira. Guztiak Ameriketara joan eta aberastuta Euskal Herriratutakoak izateak baino ez ditu lotzen, ez han bizi izandakoak, ezta itzuli ostekoak ere. Hangoari dagokionez, isolamendua lagun izan zuenetik, emazte eta «baltzukide» amerikarra izan zituenera; giro lasaian bizi izan zirenetik, bortizkeria ezagutu zutenetara. Arrazoi desberdinek bultzatuta egin bidaiaren amaieran, bakarra da damutzen dena; halaber, bakarra berriro Ameriketarako bidea hartzen duena.

GAKO-HITZAK: Emigrazioa · Herrimina · Integrazio-maila · Itzulera.

The indiano in the first half of the 20th century basque novels

In this article it is analysed how the Basque novels of the first half of the 20th century presented the indianos. They are part of stories narrated by four authors: *Kresala* (1906) by Tx. Agirre, *Jaioterri Maitia* (1901) by J.M. Etxeita, *Ardi galdua* (1918) by R.M. Azkue and *Joañixio* by J.A. Irazusta. All of them are connected by the only fact of depicting characters that traveled to America and returned rich, notwithstanding what they experienced there or what they did after coming back. About their experiences in America, novels tell us who was isolated, who had an American wife and partner; who lived relaxed or who suffered violence. Trips were made because of different reasons and in the end, only one regretted; one even went back to America.

KEY WORDS: Emigration · Homesick · Integration level · Return.

https://doi.org/10.26876/uztaro.106.2018.2 ***Jasotze data:*** 2018-01-23 ***Onartze data:*** 2018-03-14

Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera, indianoa, «Euskal Herritik Ameriketara joana; bereziki, gero berriro Euskal Herrira aberasturik etorria» da; Espainiako Erret Akademiarenarentzat, «que vuelve rica de América». Hiztegiok azaldutakoari erantzuten dioten pertsonaiak aztertuko dira, hots, Ameriketan urteak igaro ondoren, aberasturik Euskal Herriratzen direnak. XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzan sei egilek[1] kontatutako istorioetan bizitza hartu bazuten ere, hona lau[2] ekarriko dira: Txomin Agirreren *Kresala* (1906), Jose Manuel Etxeitaren[3] *Jaioterri Maitia* (1910), Resurrekzion Maria Azkueren *Ardi galdua* (1918) eta Jon Andoni Irazustaren *Joañixio* (1946). Kontakizun horietako zenbait pertsonaia Euskal Herritik Ameriketara bideratu eta aberasturik itzuliko dira.

Bat datoz horretan, nahiz eta testuon artean dauden alde batzuek ikusmiran jarritako jardungaia heterogenotasun-mailaren baten jabe egiten dutela aitortu behar. Miatu nahi den corpusa ez da zeharo homogeneoa. Bi bereizgarrik ukitzen dute homogeneotasuna. Bata da, lau idazlanetako bat kontakizun moduan taxutua ez egotea: Azkueren *Ardi galdua* gutun-multzoa bide osatuta dago. Bestea da, horietako batek indianoa bigarren mailan kokatu izana: Agirreren *Kresala*ren kasua da.

Betiere, kontalari baten ahotsak iragazirik jaso ohi da istorioa kontakizunean. Aipatutako lau idazlanotako hirutan istorioa kontalari orojakileak kontatu arren, *Ardi galdua*n ez dago bitartekaririk. Gutun-multzo soilaz eratua, ez edukitzeaz ez dauka, ezta gutunon artean lokarriren bat ezartzeaz arduratuko den ohargilerik ere. Haatik,

1. Iragarritako aldia XIX. menderaino aurreratuz gero, zazpi lirateke; izan ere, Antero Apaolazak Antonio de Truebaren *El Judas de la casa*ren (1863) egokitzapen bat plazaratu zuen: *Pachicu Cherren* (1890). XX. mendean, hemen jorratuko direnez landa, Juan Manuel Lertxundik *Polli ta Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira* (1910) eta Jean Pierre Iratchetek *Antton* (1946) izenburuetara eramandako indianoen istorioak kontatu zituzten.

2. Artikulu honen asmoetarako corpusa zabalegia izan zitekeela iritzi eta, murriztera jo da. Mugatzerakoan alde batera utzi da *Pachicu Cherren* jatorriz euskaraz ondutakoa ez izateaz gain, XX. mendea baino lehen argia ikusitakoa izateagatik. Baita *Antton* ere, P. Urkizuk esandakoarekin bat egiteagatik: «*Antton*en hari nagusia ez da Ameriketako gorabeherak kontatzen dizkiguna, hiria eta herriaren arteko oposizioa aurkezten diguna baizik» (1990: 8). Zalantzarik gabe, hirugarrena izan da hauturik zailena. Emigrazio-lekua eta argitalpen-urtea begiratu eta, *Polli ta Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira* kanpoan utzi da. Polli eta Pello Argentinako Mendozan egon zirela kaleratu zenetik hogeita hamasei urtera dator Panpa bizitoki izango duen J. A. Irazustaren *Joañixio*ko Joañixio. Bestalde, Polli eta Pelloren istorioa ezagutarazi zen urtean, hauenaz gainera, baita beste indiano batzuena ere: J. M. Etxeitaren Ardibasoko artzainena. Euskal indiano hauek «Indietan» izandako bizipenak desberdinak badira ere; batetik, XX. mendearen lehen erdiaren bigarren erdiari tartea irekitzeagatik —garai honetakoa da Panpara emigratutakoa— eta; bestetik, urte berean Argentinako Mendozara joandakoen berri ez ezik, Mexikora joandakoenen berri ere eman izanagatik, azken hauek idazle laiko baten eskutik zetozela, corpusa osatuko duten osterantzeko indianoek apaizen bat izango dutenean egile, Etxeitarenak eta Irazustarena lehenetsi dira.

3. Etxeitaren *Josecho*ko (1909) Josetxo ere Amerikak aberastuko du, baina ez da zioren batek bultzatuta hara doana. Itsasoa lantoki izatea da Ameriketarako joan-etorrietan sartzen duena. Halako batean, Ibaizabal itsasontziko pilotu zela, Bilbotik Buenos Airesera joateko irten eta, ekaitz baten erdi-erdian beste ontzi batek jo eta, Ibaizabal hondoratzen da. Etxekoak jakinaren gainean jarri eta, ahal bezain laster etxeratuko dela agindu ostean, Argentinako etxaguntza bateko nagusiak eskainitako lana onartu eta, aberastuta itzultzen da. Itsasontzi bateko pilotu dela pairatutako istripuak bihurtzen du indiano Josetxo. Horregatik, emigrante moduan ez hauteman izanagatik, ez da gogoan hartu.

ezin uka dakioke hainbat igorle eta hartzaileren artean trukatzen diren gutunetan esandakoek istorio bat josten joateko aukera ematen dutela, ezta Azkuek berak eleberri legez aurkeztu izana ere[4]. Arrazoi horiengatik, hain justu, egin zaio leku azterketa honetan.

Lau testuon arteko beste aldea *Kresala*k indianoa kontakizunaren erdigunera ez eraman izana da, osterantzekoek bestela egin dutenean. Hala bada ere, egokitzat jo da hausnarketa honetara batzea alderdi batzuk argitzeko lagungarri izan daitekeelako.

XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzak indianoa nola atzeman zuen arakatzea xede, idazle bakoitzak nola irudikatu zuen behatuz, partekatzen eta desberdintzen dituzten ezaugarriak zehaztuko dira.

1. Pertsonaia nagusia / bigarren mailakoa

Izenburuan aurreratzen du egileak ondutako testuari buruzko lehen berria. Mintzagai diren idazlanei dagokienez, izenburuak oso esanguratsuak dira indianoak bereganatuko duen protagonismo-maila iragartzeari begira. *Kresala* da Agirrerena. Gesala, alegia. Izenburu horri jarraituz, arrantzatik bizi diren Arranondo izeneko itsasertzeko herritarrez dihardu, herritar horietako zenbaitetan arreta gehixeago jarriz. Indianoa, D. Jose Antonio Egurbidekoa, arrantza bizibide izan ez duen eta ez duen pertsonaia bakanenetakoa da: noizbait Ameriketara emigratu eta aberasturik herriratu den baserritar bat.

Jaioterri Maitia da Etxeitarena. Ardibaso zoragarria utzi eta Mexikora abiatu ziren artzainen istorioa: jaioterria oso maite zuten eta, itzuli arte, herriminak astinduko ditu.

Ardi galdua da Azkuerena. Leaburutik Kaliforniara joan zen Medel Olazarreta da ardi galdua. Han protestante bihurtzean, artegitik atera eta galdu egin zen.

Irazustaren *Joañixio*n Joañixio da indianoa. Beraz, hiru testuek izenburura bertara daramate indianoa, dela izen berezia, dela Amerikak eragindako sentieraren bat bide. Aitzitik, besterik da *Kresala* izenburuak azpimarratzen duena: gesala, itsasertzeko usain jakina.

XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzan ereduzkoa ez den pertsonaia nagusi bakarra dago: *Ardi galdua*ko Medel Olazarreta besterik ez. Medel indianoa ardi galdua izateak, gorde beharko lukeen fedea galdutakoa izateak, ereduzkotasuna ukatzen dio; izan ere, ereduzko diren pertsonaia nagusi guztien bizitzari hiru oinarrik

4. Berez, honela aurkeztu zuen: «*Ardi galdua*. R. Mª Azkuek arteka-marteka egindako gertirudia». Liburuaren eskaintzako lehen hitza «gertiruditxo» da. Hona oin-oharrean emandako argitasuna:«'Novela'. Ikusi Geigarriko itz berriak» (Azkue, 1918: V). Amaieran eransten duen gehigarrian honela dio: «Gertirudi*, novela; liter. 'imagen de lo sucedido, suceso simulado'. Orain ogei bat urtetik idasle (sic) batzuk erabili degun itz berri *irakurgai* ezta egokia, 'leyenda, objeto de lectura' baita» (152). Beraz, «irakurgai» «gertirudi»gatik ordezkatzen ari da. Azkuek berak *Bein da betiko*ri (1893) izenburuaren aurretik «lenengo irakurgaia» jarria zion. Agirrek argitaratutako hiru eleberriak «irakurgei» izendatu zituen, baita Etxeitak ere bereak: «irakurgai» *Josecho*, «irakurgei» *Jaioterri Maitia*. Irazustak «edestizun» erabiliko du *Joañixio* aurkeztean, «edesti», bigarrenean, *Bizia garratza da*n…(1950).

eusten diote: euskara, euskal ohitura eta fede katolikoari atxikimenduak. Horietako bat alboratu duenez, ezin izan ereduzko *Ardi galdua*ko Medel eta, ondorioz, berezitasun baten jabe egiten da: XX. mendearen lehen erdian argitaratutako eleberrietako lehen eta azken pertsonaia nagusi ez ereduzkoa izatearena. Azkuek baino ez zuen sortu ereduzkoa ez zen pertsonaia nagusia, amai zoriontsua opatu zion arren, bere jaioterriko misioetan ardi galdua artegiratzean, benetako fede bakarra berraurkitzean.

Pertsonaia nagusia aipatu hiru zutabe horiek osatutako ereduzkotasunera biltzeak, berez, Txillardegik *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) plazaratu arte iraungo du. *Leturiaren egunkari ezkutua*k beste mundu-ikuskera bat zekarren. Aurreko eleberrigintzak partekatu zuen mundu-ikuskerarekin hausten zuen.

Egia da Txillardegiren lehen eleberriaren aurretik mamitu zela oso ereduzkoa ez zen pertsonaia nagusi bat: Jon Etxaideren *Joanak-joan*eko (1955) Piarres, alegia. «Piarres Topet Etxahun Barkoxtar koblariari buruz egin eleberria» (1955: 3) izanik, historia errealarekiko leialtasun txikienak ereduzko pertsonaia aurkeztea eragozten zion Etxaideri. Hautuan bertan zegoen oztopoa. Besteak beste, emaztearekin gaizki konpontzen zen eta haren ustezko maitalea tirokatu zuen gizonarengana jotzen zuen istorioaren erdigunean kokatzeko. Grinen agindupean jokatzen zuen pertsona zuen kontakizuneko pertsonaia nagusi. Alabaina, bekatari handia den pertsonaiari bizitza eman bazion ere, ez zuen urrundu euskal eleberrigintzako pertsonaia nagusiek indarrean zeukaten balio-sistematik: Piarresek ez ditu auzitan jartzen balio-sistema horren euskarriak.

Esan beharrik ere ez: eleberri historikoaren zeregina ez da historia azaltzea eta, hortaz, asmatzeko lizentzia zuenez, kontua ez da behatzea ea Etxaide Piarres Topet «Etxahun»en (1786-1862) biografiari nasai ala estu lotu zitzaion, baizik eta egileak nola begiratu zuen pertsonaia atzematea. Begi onez begiratutako pertsonaia moldatu zuen. Horregatik, gogorkeria areagotzera baino gehiago leuntzera jotzen du, eskaini zion bukaerak berak agerian uzten duenez: emaztea hilzorian dela, Piarresek, azkenik, lortzen du oinordekotzan jasoa zuen Etxahunia jaiotetxera itzultzea, egindako hutsegite, oker eta gaiztakeria guztiengatik etsai handiena zuen emazteari barkamena eskatzea bai eta erdiestea ere. Biografiak hala erakutsi nola ez, ondorioztatuko nuke pertsonaiak balio-sistema atxiki izanak lagatzen diola egileari, oinazea bizilagun izan duena, behingoz, salbatzea, barne-bakea aginduz.

*Ardi galdua*ko Medel Olazarretak, bere aldetik, ez du okerrik eta gaiztakeriarik egiten: protestante izatea da egozten zaion orban bakarra. Piarres eta Medelen bizimoduak ez dira alderagarri, ez bada lehenaldia gainditzeko ematen zaien aukerarengatik. Bestela esanda, pertsonaia nagusien ereduzkotasuna urratu arren, batak berrerospena bitarteko eta, besteak, fede katolikora bihurtzeari esker, bigarren mailako pertsonaia ez ereduzkoek ez bezalako amaiera eskuratzen dute. Bigarren mailako pertsonaia ez ereduzkoei zigorra ezartzen zaie, pertsonaia nagusiok, aldiz, hobesten den ordenari berriro lotzean, saihestu egiten dute. Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*n ereduzko euskaldun izatea ala ez jada ez da adierazgarri eta, horrenbestez, ezin izan sariak eta zigorrak banatzeko irizpide.

*Leturiaren egunkari ezkutua*k dakarren etena baino lehen euskal idazleak ez zuen baztertu, ezta polizi eleberri bat lantzea ere: Jose Antonio Loidik *Amabost egun Urgain'en* (1955) argitaratu zuen. Urgaineko lurperatzaileak tiro bat duen buru-hezurra aurkitzean, Garaidi detektibeari galdegiten zaio ikerketa. Ikerketaren emaitzak frogatzen du, ez hiltzaile bat, baizik eta istripu bat izan zela eragilea. Gaiak ordu arteko euskal eleberrigintzak adierazitako mundu-ikuskeratik aldentzeko ahalmena izan zezakeen, baldin eta Urgain bezalako euskal herrixka bateko herritarren artean hiltzaile bat egon izan balitz, baina, halakorik ezean, aurreko ildoari eusten zaio.

Horrela, bada, XX. mendearen lehen erdiaren mugak ondo garaitu arte mundu-ikuskera bakarra jaso du euskal kontakizunak. Mundu-ikuskera horrek euskaldun eredugarria aipatu hiru oinarrien gain eraikitzen du. Salbuespen hutsa da jarraitu beharreko eredua erakusteko pertsonaia nagusia ez erabiltzea. Lehen mende erdian Azkueren *Ardi galdua* da, bigarren erdia abiatu ostean etorriko da Etxaideren *Joanak-joan*. Istorioak bukatuko dira ardi galdua artegiratuz eta, joanak joanaz, Piarres berrerosita.

Bigarren mailan kokatzen dira beti ereduzkoak ez diren pertsonaiak. Aski da aztergai den corpusera jotzea egiaztatzeko. *Kresala*n, besteak beste, D. Jose Antonio Egurbidekoa, indianoa. *Jaioterri Maitia*n edo *Ardi galdua*n ere zintzotasun osoz jokatzen ez duten bigarren mailako pertsonaiak agertu izanagatik, horietako inor ez da indiano, ezta ezinbesteko balio-sistema —euskara, euskal ohiturak eta fede katolikoa— auzitan jartzen duenik ere. Hobesten den funtsezko balio-sistema mespretxatzen duen bakarra *Kresala*ko indianoa da. Ameriketan igarotako urteei leporatzen zaie orain daukan balio-sistemaren erantzukizuna. Agirrerentzat *Kresala*ko indianoa aitzakia soila da mezu jakina helarazteko: ohiko bizimodu tradizionaletik urruntzeak ereduzko euskaldunaren izaera suntsitzeko arriskua dakar. Gaztigua igortzeko «Itxasoetan luzaro ibilliriko ontziagintari azkar, zintzo ta biziaz» (Agirre, 1906, apud Villasante, 1976: 100) baliatzen da. Ontzi-agintariak, besteren artean indianoa solaskide duen batean, «Erbestetik ekarririko aziagaz emen ernetako bedar txarrak zarie zuek» (106) esango die. Agirrerentzat erbesteak euskaldunak izan beharko lukeen balio-sistema irauli dezake. Ikuspegi hori daukanarentzat indiano bat pertsonaia aproposa zen bere ustea azaltzeko. Gainerako idazleek erbestea ez dute atzematen horren kaltegarri, nahiz eta besteen erabakiek bultzatuta Ameriketara joan diren indianoak aurkezten dituzten.

2. Ameriketara joateko arrazoiak

Aberastea ez dute guztiek Ameriketara abiatzeko arrazoi. *Jaioterri Maitia*n sei artzain-lagun irtengo dira Ardibasotik. Haatik, ez batera, ezta zio berdinarengatik ere. Lehen bi artzainen Ameriketaratzeak jatorri sentimentala du: Juleren gurasoek ez diote baimenik ematen Sabasekin ezkontzeko. Egoera horrek sorrarazitako egonezinak eragindako erabakiak bitarteko, elkarren berri izan gabe, bakoitza bere aldetik iritsiko da Ameriketara. Ezustean topo egin zuten Mexikon. Handik denbora batera, ustekabeko elkartze berria: ezkondu ostean Ameriketarako bidea hartu duten Tomas eta Amele Ardibasoko artzain-lagunekin. Amelek Juleri aitortzen

dioenez, «Ezkeunkan basetxe bat nun bizi, ta gengozan geure aitamak elikatuten gendubezala geuk lanetan lagundubaz; baña nire nebia ezkondu ezkero, ezin bizi izan giñeitezan etxe atan» (Etxeita, 1910, apud Sarriugarte, 1988: 96). Laurak han bizi zirela, Agaton Koxkotxen falta sumatu eta berekin bat egitera gonbidatu zuten Ardibason baino irabazi hobeak izango zituela jakinaraziz.

*Ardi galdua*ko Medel Olazarreta ere, ez bizimodua ateratzeak, ez aberasteak eraman zuen Ameriketara, alargundu zenean agindu zioten ezkontza berriak baino. Seme Leoni eginiko gutunean ezagutarazten dionez, emazte eta semearen ama zuen Eladiren heriotza eta gero, amaginarrebak beste alaba batekin, Isabelekin, ezkondu behar zuela adieraztean, ezetz erantzun zion eta «Geroztik egunak neretzat eguzkigabeak zitukan. (...). Nik alde egin bear. I uzteak biotza erdiratzen idan, baina erorren on-izate gerokoak onerontz ekarri nindukan» (20). Nola Etxeitaren *Jaioterri Maitia*n jaioterri maitea uzten duten lehen artzainak, hala Azkueren *Ardi galdua*ko pertsonaia nagusiak ezkontza dute motibo giltzarria; lehenbizikoan, ezkontzaren onarpenik eza; bigarrenean, eskatutako ezkontzari uko egitea. Ez bizimodua ateratzeak, ez aberasteak, baizik eta ezkontidea askatasunez aukeratu ezinak bideratzen ditu Ameriketara.

Agirreren *Kresala*n ez da agertzen D. Jose Antonio Egurbidekoak emigratzeko izan zezakeen zergatia. Irazustaren Joañixiori dagokionez, ondoriozta daiteke, ez bere borondatez, gurasoen esana betetzeagatik baino, joan zela. Hona amaren azalpena:

> Zurea zurea, Joañixio! Datorren urtean gudari. Guda errez sortzen da ta mutil bikaiñenak or galtzen ditue itxura gabe. Gudari eramango ba ziñueke ez nuke lo aundirik egingo. Jauna, nere semea iltzeko zorin! Ongi ateraezkero (sic), an gaizki ikasitakoakin, erri aundi batera lan billa joan bear. Ola batean sartu ta osasuna galdu. Ori naiko ez dala kalean anima galdu. Kaletik datozen soñuk ez dira gure oituerantzat atsegin. (…). Aitak eta nik askotan esan degu zuretzat onena Ameriketara joatea ez ote litzaken (Irazusta, 1946: 34).

Soldadutza eta horren ostean etor zitekeena saihesteaz bestalde, kaleak gorputz-arimetan eragin ditzakeen kalteak gogoan hartuz[5], Joañixioren amak semearentzat Amerika jotzen du irteera egokientzat. Hiru kontakizunetan, indianoa pertsonaia nagusi duten hiruretan, besteek jartzen dituzte pertsonaiok Ameriketarako bidean. Ernetako oztoporen batek baldintzaturik —dela ezkontzeko baimenik eza, dela galdatzen zaion ezkontza baztertzea, dela esanekoa izatea…— abiatzen dira Ameriketara. Hiru kontakizunak ere bat datoz eragilea finkatzean: gurasoak, amaginarreba (hildako emaztearen ama). Beraz, indiano bihurtuko diren pertsonaia hauen gainean agintea duten ahaideak dira ohiko bizimoduarekin etenaraztera bultzatzen dituztenak.

5. Kalea jokaera okerrak ikasteko eskolatzat hartzea jada oso ezaguna eta zabaldua zegoen euskal eleberrigintzan. Ik. Agirreren *Garoa* (1912); Jean Barbier-en *Piarres I* (1926) eta *Piarres II* (1929); Barrensororen (T. Agirre) *Uztaro* (1937) eta *Joañixio* plazaratu zen urte berean argia ikusi zuen Iratcheten *Antton* (1946).

2. Amerikak dakartzan galerak

XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzak aurkezten dituen indianoak Amerikak aberastuko ditu, ez horratik, bizitzako beste alderdiren batean galeraren bat ekarri barik. Fedea galtzea eta euskararekiko mespretxua Agirreren *Kresala*ko indianoari; fedea, Azkueren *Ardi galdua*koari; osasuna, Irazustaren *Joañixio*koari. Etxeitaren *Jaioterri Maitia*ko artzain-lagunak bakarrik dira, herrimina kenduta, irabaziak baino izango ez dituztenak.

Azkuek ere, kontakizunaren bukaeran bizitzaz gozatzen uzten du Medel Olazarreta ardi galdua, baina, galdutako fedea berraurkitu ondoren. Galdutakoa berreskuratzen ez duenak ez du behin betiko zorionik erdietsiko. Joañixiok osasuna galdu du, zegokion garaian familia osatzeko aukera… Galerak direla-eta, hilzorian dela, Ameriketara joan izanaz damu dela aitortzen du Joañixiok. Dirudienez, lortutako diru-irabaziek ez dute berdintzen kalteen eremuan metatutakoa.

*Kresala*ko D. Jose Antoniok ere ez du berreskuratzen fedea eta estutasun artean bizimodua ateratzen zuten herritarren artean bekaizkeriatxoren bat sortzeko ahalmena zeukan gauza bakarra galtzen du: dirua. Bilbon pairatu dituen iruzur batzuk sosik gabe laga eta, berrriro, Ameriketara bideratzen da.

*Jaioterri Maitia*n ez dago fedeak sustatutako berbaldirik; *Joañixio*n, bai. Irazustak Joañixioren alderdi erlijiosoari tartea irekitzen dio. Jaiotetxean,

> Illunabarrean su ondoan bildu ta errosarioa esanaz, aitak ukullutik erantzuten zula, apaltzeko garaia irixten zitzaien. Errosarioa bera baño luzeagoak ondorengo aitagureak izan oi ziran: bata txerria gizentzeko, bestea beia ez antzuteko, urrengoa sagar-lorea ongi etortzeko, bat gehiago ume egiteko zegon beiak txekorra ez baño txala izateko, ta Jainkoak daki zenbat gehiago (12-13).

Argentinako Panpan denean,

> —Eta emen elizarik ez al da? —galdetu zun Joañixiok.
>
> —Emen? Ez emen eta ez amar legua bidean. Zertarako? Apaizik gabe berdin bizi gera. (…).
>
> Joañixio, arritu aña ikaratu egin zan Erramonen ateraldiaz. Ura ere Amezketarra zan ba! (…). Abere artean bizitzeak aberetu ote zun? (…). Ez, berak beñepein gabero, lo artu baño lenago errosarioa esango zun. Bai noski. «Joañixio: Anima galduezkero, gañerakoak ez ditek ezertarako balio», amak esan zion azkenengo itzetan (79).

Itzuli ostean, ezkonduta Tolosan bizi dela, goizeko seietako meza lehenesten dio meza nagusiari. Honako gogoeta hau egiten dio emazte Maitexari:

> Nire lagun oiek ez dira elizakoiak. Ba dakizu?: (sic) Ameriketara joaten gera, eliz bat ikusi gabe urteak joan ere bai, il eta bizi berdin egiten dala ikusten degu, ta Jainkoan bearrean geranik aztu egiten zaigu. Ori da egia. Ba diruri ununtz etorriezkero, beste zer egiñik ez ta elizakoiak bear gendukela, bañan, oituera zar bat berritzea berria artzea baiño zaillagoa da (248).

Indianoarengan fedea hozten joatea testuinguruari egozten dio ereduzkoa den Joañixiok. Harri eta zur geratzen da Joañixio «Apaizik gabe berdin bizi gera» (79) entzutean bera bezala «On Pilipe»k kristau-sinesmenean hezitako amezketar batengandik. Heldu zenean sinestezin egiten zitzaiona, Panpan urteak igaro eta gero, oso ondo ulertuko du bere adiskide indianoak adierazitakoa. Han eman denbora luzean inguruneak eragotzi zion praxi erlijiosoarekin jarraitzea. Horra hor, kalte-eragilea!

Etxetik irten aurretik amak esan zizkion atzeneko hitzak bizitza osoan gogoan hartu dituen Joañixiok onartzen du fedea galtzeko arrisku-leku dela Amerika. Ereduzko pertsonaia batek bizitza-baldintzetan kokatzen du indianoak etxetik eramandako irakatsi erlijiosoak alboratzeko arriskua. Joañixiok gaindituko duen arriskua da.

*Joañixio*ko Joañixiori ez bezala, *Kresala* eta *Ardi galdua*ko indianoei Amerikak fede-aldaketa ekarriko die eta horren kariaz oztoporen bat gaineratuko zaie.

Kontalariak dioenez, *Kresala*ko D. Jose Antonio Egurbidekoa, «Ameriketan aberastua, ez erderarik eta ez euskerarik ezekian mutil zarra, zerren aztu egin jakon bata ta bestea ezeban ikasi, baña bere buruari asko eritxon arro andia, siñiskorra ta siñisgaiztokoa» (99) da. «Siñisgaiztokoa» izateak ernetako nahi bat betetzea ukatuko dio, «Arima argidun da biotz samur sentikorraren jaubea, oso mendu oneko emakumea, mazala berez, apal, zintzo, esaneko, ixil, baketsu ta ona» (57) den Mañasirekin ezkontzea. Euskara gaiztoa egiten badu ere, oso euskara garbian idatzitako gutunaren bidez luzatzen dio eskaria une horietan neskame moduan Bilbon lan egiten duen Mañasiri. Hark ezetz dio erantzunean: «Eskerrikasko, baña etzaitut bear. Berrogetamar urte inguru eukiko dozuz onezkero: zarra zara niretzat. Kristiñau otza ta euskaldun badaezpadakoa zarean entzutea dot: ortik be ezkiñake ondo etorriko» (129).

Indianoak, horratik, ez du etsitzen. Hartzailez aldatuz, Mañasiren gurasoei zuzentzen die eskaera. Ia berrogei mila ogerleko dituela esaten dienean, haiek pozik onesten dute ezkontza. Idazten dakien Mañasiren lagun Josepak moldatutako gutunak jasoko du Mañasiren gurasoen guraria: indianoarekin ezkondu. Hala eta guztiz ere, aita-amok garaiz iritsiko dira «otsoari belarriak» ikustera: beren alaba indianoarekin ezkontzea eragozten duen kausa. Elizara barik ezkontzeko asmoa azaltzen dienean D. Jose Antoniok, zeharo haserretu eta, aurretik bedeinkatzen zuten ezkontza, orain, arbuiagarri irizten diote. Beraz, kontalariak itsatsia zion «siñisgaiztokoa» ezaugarria erabakigarria da: indianoaren diru-poltsak liluratu eta itsutu zituen Mañasiren gurasoek zeharkatzeko prest ez dauden mugarria daukate: elizaz ez ezkontzea sasiezkontza da. Bat datoz hirurak, guraso eta alaba, iragan ezin daitekeen lerro gorria ezartzerakoan.

Horrela, bada, «siñisgaiztoko» bereizgarriak helburu zuena lortzea galaraziko dio indianoari. Hortik aurrera kontuek okerrera baino ez diote egingo: erakargarri zuen alde bakarra, dirua, galdu eta berriro Ameriketara abiatu zela dio kontalariak.

*Ardi galdua*ko Medel Olazarretak ere, fedez aldatuko du Ameriketan eta, horren ondorioz, nahiezen bat erneko du. Belauntzatik Azpeitiko bereterburu jaunari beraren adiskide begirunetsu Agustin Basaldek idazten dion gutunean honako hitz hauek jartzen ditu Medelen ahotsean:

> ni emezortzi urte aunditan, elizarako bidea galduta ibili nauk; gainera badakik nolako erlijioa zuen nire bigarren emazteak. Seme, etxetik eraman nuen erlijioa, arroinak (zimenduak) utsak zituelako edo, galdu nian behintzat; eztiat orain inolako sinesterik (104).

Aitaren gabezia horrek semearengan eragingo du: hain justu, Ameriketara joan zenean Leaburun utzi zuen Leonengan. Leonek Leaburuko parroko izatea xede badu ere, kargu horretarako desegokitzat jotzen dute badaezpadako fededun den baten semea. Horra fedeak sorrarazitako traba: aitaren nola-halako sinesmenak gogoko lukeen bidea egitea oztopatzen dio ereduzko sinesmendunari.

Leonen meza berria zela-eta, hasi ziren gauzak bihurritzen. Lasartetik Azpeitiko bereterburu jaunari adiskide eta mendeko Andres Artesarri apaizak igorritako gutunak dioenez, Isabel, hau da, Leonen aita Medelek emaztetzat arbuiatutakoa, giroa gaiztotzen ari da. Leonek, Leaburun barik, Lasarteko komentuan eman behar izan zuen meza, Isabelek, bere izebak, zabaldutako mezuak izandako oihartzunarengatik: «¡Protestante batzuen diruaz meza Santua!» (76). Salatzen ari dena da, aitak, Medelek, ordainduko duela ospakizuna, meza berri baterako sosak protestante batek ematea onartezina denean.

Meza berriarekin abiatutako eragozpenek jarraipena izango dute: «Leon Arabako urixko tutu txatxar exerex baterako Parroku izendatu zuen Apezpiku jaunak; eta Leonek... joan egin bear» (89). Eskuratuko du laguntzarik, ordea, eta, gura bezala, Leaburura aldatzea erdietsi. Aldaketak, haatik, ez dakarkio orekarik. Belauntzatik Azpeitiko bereterburu jaunari beraren adiskide begirunetsu Agustin Basaldek bidalitako gutunak argitzen dioenez, «Leaburuko arima-zain, Leon Olazarreta, oso abaildua dago» (99).

Isabelek bazterrak nahasten segitzen du:

> norbait (diotenez, Isabel, Leonen izeba Isabel) asi omenzan Medelengan belztasunen bat nabaritzen; ta, isil-misilka lenengo, txutxumutxu gero, zurru-murru geroago ta esan-mesanez azkenean, nunnai, Leabururen lau egaletako sukalde guztietan zabaldu zan: Apaizaren aita etzala kristau ona (101).

Horiek horrela, Belauntzako apaiz den Agustin Basaldek Leon honela aholkatu izana aitortzen du: «Aita, orrelakoa dezunartean, beste nunbait, atzerririk urrutirenean bizi bada ere, eztezu zilegi (...) Leaburuko parroku izatea» (102). Aita jakinaren gainean jartzen duenean, hark bereari eusten dio, Leaburun frantziskotarrek zuzendutako misioetan katoliko zintzo bihurtzen den arte. Gainditu da gatazka. Ereduzkoa ez zen pertsonaia ereduzko izatera igarotzean, semearen arazoa konpontzeaz bestalde, bada hobaririk bere buruarentzat ere: aldaketari esker, orain, Azkuek eskaini diezaioke Medeli behin betiko bakea eta zoriona.

4. Komunikazio-hizkuntzan aldaketa

Elebakarrak izanez gero, beste hizkuntza bat erabiltzeko premia zuten indiano hauek. Estreinakoz zapaldu duten lekuan euskaldunak bizi baziren ere, euskara ez zuten aski beren bizimodua antolatzeko.

Urri dira, bizileku berriko hizkuntzaz non, noiz, nola jabetu ziren gaiaren inguruko albisteak, bigarren hizkuntza horretan gobernatzeko gauza badira ere.

*Kresala*ko D. Jose Antoniok euskara eta gaztelania gaiztoak egiten ditu, lehena ahaztu eta bestea egoki beretu ez duelako.

*Jaioterri Maitia*ko artzainei dagokienez, gaztelaniarekin moldatzen direla ondorioztatu behar, hango jendearengana jo behar dutenean, inork ez duelako esaten elkarren berri izateko trabarik daukatenik.

*Ardi galdua*ko Medel Olazarreta leaburuarrak ingelesa ez du oztopo, nola eskuratu duen ezagutarazten ez bada ere. Bere lehen gutunean, «Gaur egunean ingelesez mintza ezin dan gizona gizon-erdi baizik ezta» (7) dio eta, semeari igorritakoan, «Gure erriko baserritar ezer ikusi gabeak bestera uste izanarren, ingeles-mintzoa dek gaur-egunean gizonak bearren duena» (18). Baita ingelesa ikasten hasteko gomendatu eta, berak ordainduko duela ere, gaineratu.

*Joañixio*ko Joañixiok badaki gaztelania, Amerika duela irtenbide onena uste duen amak «eskola ona daukazu, erderaz ere egiten dezu» (35) baitiotsa. Oso toki bakartian bizi da Panpan eta oso pertsona gutxirekin du harremana. Nahiz eta hizkuntza-arazorik ez izan, euskaraz egitea gogokoago du: «Erramon ta Telex joanakin (…). Bi gutxigo euskeraz egiteko. Eskerrak Batixta euskalduna zala. Aituz aituz Brauliok eta mukamak eta bat edo bestek ikasi zuna, baño gauza gutxi. Beste iñork itzik ez» (112).

Denek ikasi dute bigarren hizkuntza bat. Ameriketara joatearen eskakizuna ere bazen. Maila hobean edo okerragoan bi hizkuntza —Medelek hiru— ezagutzen dituzten pertsonaia gehienek hizkuntzon balorazioa ere egiten dute. Guztiek gabe, gehienek, alderdi honetatik ere salbuespen izaten jarraitzen dutelako Etxeitaren *Jaioterri Maitia*ko indianoek. Artzainon sinesmen erlijiosoari buruzko gorabeherak, nahiz Ardibasokoak nahiz Ameriketakoak isiltzen dituen Etxeitak, berdin jokatzen du bai ama-hizkuntzaren, bai noizbait eta nonbait ikasiko zuten bigarren hizkuntzaren gainean izan zitzaketen iritziekin. Euskararekin eta euskaldunen artean hobeto konpontzen dira Mexikon bizi direnean, baina, osterantzekoek ez bezala, bi hizkuntzok erkatzea edo epaitzea alde batera utziz[6].

6. Hizkuntzok alderatu edo epaitu ez izanagatik, hizkuntzen erabilera dela-eta, bada atentzioa ematen duen xehetasun txiki bat. Tomas artzaina lapurrek bahituta daukatela, emazte Ameleri bahisaria jakinarazteko tenorean, lehenbizikoz eta azkenekoz «españera» aipatzen da. «Orduban iratzi eban irazki bat españeraz, euskerara biurtu ezkero ziñuana» (182) dio itzulpenaz arduratuko den kontalariak. Ordu arte artzainok erdaldunen artean bizi direla iradoki baino egin ez duenean, une jakin honetan bestela jokatuz, baliatutako hizkuntza zehazten du. Hizkuntza izendatzean, kontakizunean zehar eraiki duen araua hausten du. Hausten du, ez aurretik, ez ostean, adierazi ez izanagatik «españeratik» euskaratuz jardun duela. Kontalariak ezagutarazten du Tomasen dardarizoak idaztea eragozten ziola eta, orduan, bahitzaileetako batek beretu zuela betekizuna. Beraz, bahitzaile batek idatzitako gutuna da.

Agirreren *Kresala*ko indianoak «Yo puedo *desir* mejor que nadie, porque *ha* visto *muchos* tierras: *baskuentze* no vale para ganar pan» (103) dio[7]. Mundura ateratzeko euskarak dituen mugez ohartu izanagatik, gauzak oso modu desberdinean planteatzen ditu Azkueren *Ardi galdua*ko Medelek. Leon semearengandik gaztelaniaz idatzitako gutuna jasotzen duenean, hona igorritako erantzuna:

> ¡¡Ikasgu (Colegio) orretan eztuela iñortxok ere euskeraz ezkutitzik egiten!! ¿Eta ik ere ire aita euskaldunari erderaz egin bear? Nik, orain hamalau urte andi etxetik atera nindukanean, erdera gutxi nazekian, orain ala ere gutxiago. Emen *mexicano* ta *chileno* arlote batzuez landan, ingelesez ta euskeraz ari izaten nauk beti. (…). Urrengorako eska zayok orko nagusiari, aitarekin, korreoz bada ere, euskeraz mintzatzeko baimena. Nik nayago nikek euskeraz baino ingelesez irekin mintzatu, ez ingelesa euskera baino maiteago dedalako, bearrago degulako baino (18).

Indiano guztiek maite dute euskara eta euskaraz egitea hobesten, *Kresala*koak izan ezik. Horri bakarrik «ahanzten» zaio euskara Ameriketako egonaldian.

Elebitasuna edo eleaniztasunaren kontua Agirre eta Azkueren pertsonaiek baino ez dute hartzen hizpide. Jadanik esan den bezala, ez autu honetan, ez besteetan, indianoa ezin izan zitekeen Agirreren pentsamenduaren bozeramaile. Ez erdararik, ez euskararik ez zekien «arro andia, siñiskorra ta siñisgaiztokoa»k (99) asko ikasi eta ikusitakotzat bazeukan ere bere burua, bere izaeraren ezaugarriek galarazten zioten Agirreren ikuskera adieraztea. Beste pertsonaia bati egotzi zion zeregina, itsasoetan luzaro ibilitako ontzi-agintariari; Azkuek, berriz, Medel Olazarreta indianoari.

Agirrek zein Azkuek bazterrak ezagututakoengana jotzen dute hizkuntza-aniztasunaz zuten ikuspegia azaltzeko, Arranondo eta Leaburuko txokotik irten eta beste kultura batzuetakoekin harremanak izan dituztenengana. Agirreren itsasgizona eta Azkueren indianoa bat datoz elebidun edo eleaniztun izatea nori dagokion zehaztean. Honela dio *Kresala*ko itsasgizonak:

> Da gañera, zeñek esan deutsu zuri nai ta naiez ikasi bear dogula guk Gaztelako izkuntzea? Eztiñot gura dabienak ikasi eztaiela, ikasia beti dator ondo ta; eztiñot gaztelar agintariakaz Euskal erriko gauzen gañean zerbait erabagi bear daben euskaldun nagusiak eztabiela ikasi bearko; baña euskaldun guztiok? (101).

Bistakoa denez, kontalariak hainbatetan bete behar izan du itzultzaile-lana, pertsonaiak erdaldunekin harremanetan zeuden bakoitzean, baina testuinguru honetan soil-soilik gehitzen du ñabardura. Horregatik urratzen du testuan arau bihurtua zuena, kontakizunak inon jaso barik zeukalako artzainon ingurukoen arteko komunikazio-tresna zein zen. Noiz urratuko kontakizunari atxikia zion araua eta, Tomas bahituta daukaten lapurren hizkuntza mugatzean. Agian, ez da izango asmodun salbuespena, nahita hautatukotzat hartzeko bidea irekitzen badu ere, bahitzaileok gainerako erdaldunengandik bereiztean. «Españeraz» mintzatzen direnen artean bizi dira, haatik, abagune honetan baino ez du ipintzen izenik. Lapurrak diren bahitzaileok gainerako gaztelaniadunetatik banantzeko? «Españeraz» dihardutenen artean bizi izanagatik, bahitzaileok egindakoa salatzeko? Batzuk eta besteak desberdintzeko? Arauaarauaren urraketa (desbideratzea) kontzeptuentzat ik. Dubois, J. eta beste, 1982.

7. Agirrek «bedar txarrak» gaztelaniaz jarduten zutela agerrarazi ostean, «baña nik euskaldunentzat egiten dot neure lantxo au ta euskeraz ipiñiko dot beren jardun guztia» (100) argitzen du. Baita agindutakoa bete ere, ez bada, indianoak behin batean esandakoa euskaraz eman ostean, gaztelaniaz zehatz-mehatz nola adierazi zuen eransten duenean. Behin baino ez gehitu arren, aski zuen gaztelania zale den pertsonaiak gaizki darabilela erakusteko. Azkuek ere jasotzen ditu Medel Olazarretaren ingelesezko hitz gutxi batzuk, zuzen osatuak, ordea. Beraz, hizkuntza berriaz ondo ala gaizki jabetutakoak izateak ere bereizten ditu bi indiano hauek.

Eta Medel Olazarretak Leon semeari bidalitako gutunean,

> Osaba apaizak nai lukenez, Leaburun beti izateko bâiz, arako eztek latinik ere bear. Nik, ordea, i, apaiz argitsua aizelarik, gutxienez Donostian parroku ikusi nai induket (18).

Biek pertsonek bizitzan duten helburuetan kokatzen dute elebakartasunetik eleaniztasunerako jauzia: bizileku, esku artean nahi litzatekeen lantegi eta abarren barruan hautematen dute.

Euskal Herrian bertan ere, euskara soilarekin ez dago noranahi eta zernahitara joaterik. Donostian ala Leaburun parroko izateak galdatutako jakinduria-maila ez da berdina. Donostian parroko izatea xede duenak, gutxienez, hiru hizkuntzatan gobernatzeko gaitasuna beharko luke.

*Kresala*ko indianoa kenduta, gainerakoek, euskara erabiltzea gurago dute. Hori da haien ama-hizkuntza. Agirreren ikusmoldea adierazten duen itsasgizonak gaztelania jakitea gizartean bete nahi diren zereginekin eta jadetsi gura den mailarekin uztartzen du. Baita ingelesaz jabetzea ere *Ardi galdua*ko indianoak: Leabururako ez latinik, ez gaztelaniarik, ez ingelesik …, baina, Donostiarako? Pertsonaren asmo eta jomugen menpe jartzean Agirre eta Azkue iritzi bereko diren arren, ondarrutarra lekeitiarra baino askoz mesfidatiago agertzen da. *Kresala*ko Arranondotik ateratzea ereduzko portaera gordetzeko arriskugarri izan daitekeela deritzon Agirreren aurrean, Leaburuko bazterrak gainditzeko aukera eskaintzen die Azkuek; izan ere, fede katolikora bihurtutako Medel indianoa, «Arratsaldean, (…) (eskolara) joan oi da, mutil koskor auei ingeles-apur bat eta kontuak buruan sartzeko asmoz» (138).

Hizkuntza desberdinetan moldatzeko gauza izatearen eskakizuna norberak hautatutako jardunbideari lotzen zaio. Hori bai, *Ardi galdua*ko indianoak batez ere ingelesa ikastera gonbidatzen du: kalterik ez dakar eta probetxuzkoa izan daiteke. Ikuspegirik irekiena erakusten duen indianoa da.

*Ardi galdua*ko Medelentzat ingelesa da mundu zabalera irteteko premiazkoena den hizkuntza. Geroago errealitate huts bihurtuko zena, Azkuek XX. mendearen bigarren hamarkadan bertan igarri zuen. Etorkizuna asmatu zuen ingelesa mugez gaindi ibiltzeko hizkuntza eraginkorrentzat hartzean.

Hizkuntzaren prestigioaren gaia ere azaleratzen da kontakizun hauetan. *Kresala*ko D. Jose Antoniorentzat gaztelaniak euskarak baino prestigio handiagoa du, ez horrela, Irazustaren *Joañixio*ko Joañixiorentzat, nahiz eta bestelako usterik duen amezketarren berri izan. Euskaraz aritzeko egokierarik ez duenean, Joañixio arrotz sentitzen den bitartean, amezketar batzuk, «Eta on Pilipe gizajoak uste zun erderaz itz egitea apañago zala. Erri aunditara neskame zijoazenak ere bai: itzulean, gauza aundi bat egingo ba lue bezela, erderaz mintzatzen ziran» (112).

*Kresala*ko indianoarentzat izan ezik, XX. mendearen lehen erdian kontakizuna bizileku duten indianoentzat, ama-hizkuntza, euskara, ikasi duten erdararen azpian ez dagoen haien komunikazio-hizkuntza izateaz bestalde, identitate-zeinu ere

bada. Bigarren hizkuntza baten beharraren gaineko gogoetarik edo hizkuntzen arteko alderaketarik ez egin izanagatik *Jaioterri Maitia*n, euskara identitate-zeinu moduan azaltzen da. Kontakizunaren une jakin batean, Juleren gurasoek Mexikotik Ardibasora etortzearen baldintzapean jartzen diote Sabasekin ezkontzeko baimena alabari. Baimena eskuan duela itzultzean, Sabas gatibu daukate bere ugazabaren ondasunak babestean bi gizon hil dituelako. Sabas hiltzeko agindua noiznahi hel zitekeen egoeran, nagusiak aska zezaten egindako ahaleginak alferrikakoak izan ziren. Haatik, Julek ez du etsitzen eta, gomendatu dioten agintariarengana jotzean, haren Juste izeneko emaztearen laguntza jasoko du. Zergatik? Julek ahots goraz bere buruari euskaraz esandakoak entzutean, identitatea partekatzen dutela ohartzen delako Juste: euskaldunak zituen gurasoak eta beti maitatu ditu euskal herritarrak (Toledo, 2015: 548).

5. Kulturartekotasuna

Beste hizkuntza bateko (batzuetako) hiztunen artean ez ezik, beste kultura baten (batzuen) jabe direnen artean bizi dira.

Indiano izenari erantzuten dioten neurrian, errotzera gabe, Euskal Herriratzeko asmoarekin emigratutakoak dira. Joan-etorri bezala planteatua zeukatelako edo beste sentipen batzuengatik, komunitate berriak ez ditu erakartzen, ez bada *Ardi galdua*ko Medel. Medel Olazarretak aitortzen duenez, bizileku duen Kalifornia «osasun-erri ta ondasun-erri da» (2). 1887ko garagarrilaren 6an Adrian Iriondo Leaburuko bikario jaunari idatzitako gutunean dioenez, «Orain Sacramenton nago ingeles batekin baltzuan; bion artean *arrozku* (sic) andi bat, Hotel bat egin degu» (4). Jardungai diren indianoen artean Medel Olazarretak soil-soilik izango du euskalduna ez den «baltzukidea»: protestantea den Mister Stephenson. Gisa honetan aurkezten du seme Leoni bidalitako gutunan: «Protestantea dek, baina gizon zuzena, zinezko gizona, gutxi bezelakoa» (19). Bidenabar esanda, XX. mendearen lehen erdiko kontakizunean ezaugarritze oso berezia da, zeharo bakana. Bitxia da, katolikotasunetik kanpo pertsona zintzoak egon daitezkeela aditzera ematen duelako, nork eta apaiz batek, eleberriren baten egile den apaiz bakar batek ere ez zukeenean eramango kontakizuneko pertsonaia nagusiaren ahotsera, Azkuek protestante baten ezaupidea egiteko erabilitako bereizgarriak, hain justu, apaizok fede katolikodunetatik at gizon presturik ez dutelako atzematen.

*Joañixio*ko Joañixio Amezketan auzokide zituen Erramon eta Telexekin Buenos Airesen batu ostean, haientzat egingo du lan Panpan, harik eta nagusiok itzultzea erabakitzean, beren azienda erostea eskaini eta aurrezkiak ordainketa osatzeko adina ez baziren, «norbaitekin erdibana sartzea» (88) proposatu zioten. «Baltzukidea» ere begiz jota daukate: Aniotz, Ustaritz edo inguru hartatik etorria. Amerikarra gabe, euskalduna. Beraz, euskaldunengandik euskaldunengana igarotzen da irabazpidea.

*Jaioterri Maitia*ko artzainek ere, ez dute izango «baltzukide» amerikarrik. Lehenbizi joandakoak hurrengo datozenez arduratuko dira. Aurrena Ameriketaratu ziren Sabas eta Jule Ardibasoko artzainek, ondotik heldu ziren Tomas eta Amele,

lehenik soldatapeko langile legez hartu zituzten; gero, «baltzukide» egingo dituzte. Berengana etortzera gonbidatzen dituzten Agaton Korkotx eta haren emazte Genare babestuko dituzte: iristen direnerako egotziak dizkiete zereginak. Itzulerak prestatzeari ekiten diotenean, hango azienden kudeaketarako ardibasotarrak aukeratuko dituzte. Sabas eta Jule Ardibasora bueltatzeko moduan ikusten direnean, «Sabas ta Tomasek erabagi eben Agaton-korkotx geratu zeitiala Sabasen irabazbidiagaz: baña etxaguntzia ta aberiak saltzen baziran, erdija Sabasentzat izango zala» (165). Gelditu ziren laurak herriratzeko egokieran daudela irizten diotenean,

> Sabasi biraldu eutsen irazki bat, esaten eutsela juan zeitezela eurakana Tomasen anaie Silbester ta Juleren neba Baleren, ango arazo guztijen ardurea artzera; eta gaztiok ikasten ebezanian arazo guztijak, sorterriratuko zirala, gaztiok euren ordez itxita (194).

Ardibasotik eramandako senideen eta ez bertakoen esku utziko dute Mexikon jasotako azienda.

*Ardi galdua*ko Medel Olazarreta, Leaburuko alarguna, Bostonen jaio, San Frantziskon hazi eta Sacramenton bizi den Alicerekin ezkontzen da. Alice protestantea da. Aztergai diren idazlanotan zeinahi egoera zibiletan (ezkongai, alargun, ezkondu) Ameriketaratzen direnak aurki daitezkeen arren, Medel da amerikar batekin ezkontzen den bakarra. *Joañixio*ko Joanixio Euskal Herriratu ondoren bere ilobarekin ezkonduko da. *Jaioterri Maitia*ko Juleren gurasoek alabaren eta Sabasen arteko ezkontza eragoztean, horiek ibilitako bideak bitarteko, elkarren berri ez zutela Mexikon egin zuten topo. Ezkongai Ameriketaratutakoak, han ezkonduko dira lehenago ukatutako baimena lortzean. Ardibasoko beste lau lagunak ezkonduta zeuden bidaia hasi zutenerako. *Kresala*ko indianoa ezkongai joan eta itzultzen da.

Beraz, Medelena izan ezik, gainontzeko ezkontzak euskaldunen artekoak dira. Dena den, Etxeita da atzerritarren batekin ezkontzea berariaz baztertzen duen bakarra:

> Tomas ta Agaton, emazte ta seme-alabakaz, jaioterrira juateko asmuetan ebiltzazanian, Tomasek artu eban Sabasen irazki bat, esaten eutsala guraso ta senide enparaubak nai ebela, Silbester ta Baleren ezkondu zeitezala, eurak etxeratu orduko, bildurrez bertako ezkongeiakaz egin zeitezan. Onetarako, guraso ta senide guztijak poztuko litzakezala, Baleren ezkonduko balitz Agatonen alaba Auregaz, ta lenengo eretijan biralduko ebela Juleren aizta Miren, Silbesterregaz ezkontzeko (198).

Beren ingurunea atzean laga eta beste komunitate bateko kide izatera igarotzen dira Ameriketan bizi direnean. Komunitatez aldatzen dute, euskal komunitatetik irtetean. Jatorrizko komunitatea dute gogoan, ordea, eta lanak baino ez ditu lotzen komunitate berriarekin. *Joañixio*ko Joañixio euskaldunen artean bakarrik sentitzen da eroso; *Jaioterri Maitia*ko artzainak beren artean, nahiz eta beste euskaldun batengana zabaltzen duten adiskidetasuna: Akillin izeneko korkoxdunarengana. Gaztetan gurasoekin batera iritsi eta aberastu den bizkaitar korkoxduna izanik, Agatonek beste euskaldun korkoxdun bat ezagutu nahitik jaiotako harremana da.

Lanera biltzen dute arreta, lanarekin ahalik eta irabazirik onenak erdietsiz, lehen baino lehen herriratzeko. Horrenbestez, landa-giroko euskaldunari mozkin hobeak eskuratzeko aukera ematen dion tokia da Amerika. Besteen erabakiek ernetako deserosotasunak gainditzeko konponbide bezala pentsatua dute gehienek, baina, hara ailegatzean, lehenik, bizimodua ateratzea eta gero irabaziak hobetzea dute lantegi. Ez daude han, ez adiskideak egiteko, ez beste kultura batez jabetzeko, ezta bertakotzeko ere. Atzerrian euskaldunen artean babesten dira, *Ardi galdua*ko Medelen salbuespenarekin.

Sustrairik botatzen ez duten atzerriratuak dira. Saiorik ere egiten ez dutenak. Beste kultura bat dutenen artera emigratu dute, ez horregatik, integratzeko asmoz. *Kresala*ko D. Jose Antonio indiano bihurtu arteko konturik kontatzen ez denez, ezin jakin nola moldatu zen Ameriketan. Hortaz, Medel Olazarreta kenduta, osterantzekoak arrotz sentitzen direla ondorioztatu behar: herrimina pairatzera kondenatu dituen erbeste dute bizitoki[8].

6. Herrimina

Gertaerak Arranondon kokatzen dituen *Kresala*ren kontalariak hitzik ere ez dio indianoaren Ameriketako egonaldiaz. Gainerako kontakizunetako indianoei dagokienez, Ameriketara abiatu aurreko eta osteko gorabeherei, hangoak gaineratzen zaizkie. Gorabehera horien artean, Amerikak eragin dizkien sentipenak. Sentipen horietan herrimina gailentzen da.

Hala ere, ez dago damurik *Jaioterri Maitia*ko artzainengan. Nahiz eta herrimin ikaragarria jasan duten, itzuleraren antolaketari ekiten diotenean, beren senideak deitzen dituzte sortu dituzten azienden erantzukizuna har dezaten. Estutasun handiak pasa eta herriminak harrapatu arren, irtenbide egokitzat jotzen dute beren ahaideentzat. Gizonezkoak bizitza galtzeko zoriraino eraman eta emakumeak egoera horri adoretsu aurre egiteko premian izan badira ere, guztiak herrimin sakonak astindu izanagatik ere, alderdi txarron gainetik balioztatzen dituzte lortutako ondasunak. Irabaziak hobetzeak eskatutako ordainketa. Ez dago damurik, ezta *Ardi galdua*ko Medelengan ere. Adrian Iriondo Leaburuko bikarioari idazten dion lehen gutunean esaten dio, Leaburun utzi zuen seme Leonek jada Kaliforniarako bidea hartu beharko lukeela: «Or baino ikaspide obeak dira emen, irabazpide geyago, ugariago dirua. (…). Osasun-erri ta ondasun-erri da au» (1-2). *Joañixio*ko Joañixio da Ameriketara joan izanaz damutzen den bakarra.

8. Olaziregik (2015: 319-332) corpus zabala abiapuntu hartuta, Apaolazak *Pachicu Cherren* izenburupean argitaratutako egokitzapenetik Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea*renganainokoa (2003) kontakizunaren alorrari dagokionez, «bestea»ren irudikapenaren berri ematea du helburu. Hau da, euskal letrek Amerikaz helarazi duten irudia. Askoz mugatuagoa da jardun honetarako zehaztutako aztergaia, XX. mendearen lehen erdiko eleberrigintzara zedarritu baita, zein alditara eta, juxtu, «gu»a gune izan zuenera eta, oso modu sinplean finkatzen den «gu» horretara batzen ez zena, izan Euskal Herrian jaiotakoa ala ez, «bestetzat» jo, eta «beste» hau «gu»a nabarmentzeko bitartekotzara xedatu zuenera. Beraz, euskal lurraldean bertan hobesten ari diren «gu»a bistaratzeko eginkizuna egotzi zaien pertsonaiek berek aldamenean dauzkate «besteak». Ameriketara joandako gehienek inguru berriaren «bestetasuna» sentituko dute, ez guztiek, horratik, badelako «bestearekin» ondo moldatu zenik.

Behin herriratuta herrimina gainditurik, *Jaioterria Maitia*ko artzainek beren zaletasunez gozatzea dute eginkizun nagusi: «Dirudunak izan arren, eta bizar ta ule zurijak orraztu arren, euren gurari andijena izaten zan, artzain-abestijak abesautia Aritx-tantaiaren azpijan» (220). Merezi izan dute Ameriketan igarotako urteek. Medel Olazarretak ere eguna zereginez betea dauka; goizetan, beste indiano batzuekin tokan jokatu edo arotz-lanetan jardun; arratsaldetan, Leaburuko haurrei ingelesa eta kontuak irakatsi. Leaburun izan ziren misioetan ardi galdua artegiratuz gero, «Ezin paketsuago, ezin zoritsuago da emen daraman bizikera» (137). Oso bestelakoa da Joañixioren sentiera:

> Indianoan legea ori da: aspertu. Zartzarora alde guzitan arrotz, eta aspertu. Emendikan dijoan mutil bakoitzari kopetean izena jarriko nioke: 'aspertu'. Alaz guztiz ere joango lirake. Batetik buru ariña, bestetik gauza berrik ikusteko gogoa, ta gero diru soñu ori, gurasoak nastutzen dituna… Amerikak inpernuko etsaiak baño ekarketa aundiagoa du (250-251).

Arras desberdina da Medelek Leaburun eta Joañixiok Tolosan duten gogoaldartea.

Joañixiok badu motiborik damutzeko. Amerikak eman dionak ezin berdin dezake kendu diona. Nozitu duen herrimin eta bakardadeari, itzuli ondoren osasuna galdu izana eransten zaio. Iloba Maitexarekin ezkondu ostean, berrogei eta hamazortzi urterekin lehen alaba… Joañixiok Amezketako apaizari aitortzen dioenez,

> Ez al du ikusi zeñen ume aulak ditugun? Ala bear zun! Indianoan amaia baño gauza motxagorik ez da, apaiz jauna. Amezketako mutillak galdetzen ba diote, ez bezaio iñori Ameriketara joateko esan. (…) bi akats ezin kendu: umeak gaitzkorrak, aulak izatea, ta umezurtz goiztxo utzi bearra… Gogorra da! Eta ori guztia, Ameriketan, esateko egun on bat izan gabe. Beti onerako gogoan, onera iritxi ta au gertatzeko…! (271).

Galerak zeharo gailentzen zaizkie irabaziei. Hortik, damua.

7. Egileak

Kontakizunotako egileen formazio, lanbide, esperientzia eta abarretan alde nabarmenak daude. *Kresala*ren idazle Agirre (1864-1920), karrera laburreko apaiza, lehenik Karrantzan eta, aurrerago, urterik gehienak Zumaiako Karidadeko Moja Karmeldarren kapilau-lanetan aritu zen. Euskal Herriko hainbat herritarako joanetorriak egin izanagatik, muga horien barnean geratu ziren haren ibilaldiak.

Agirreren biografiatik asko urruntzen da Etxeitarena (1842-1915). Pilotu-titulua eskuan, mundu zabaleko itsasoak zeharkatu zituen, Manilan ostatu hartu arte. Manilan kudeaketa-lan ugariz arduratu zen, baita bertako alkatetzara iritsi ere.

Azkuek (1864-1951), berriz, Nautika ikasketak laga eta Filosofia eta Teologia ikasketei heldu zien. Ikasketok, Agirrerenak ez bezala, ez ziren bukatu Gasteizen; izan ere, lehenik, Salamancan jarraitu zituen Eskritura Santu eta Zuzenbide Kanonikoko ikasketak, geroago, baita musikako ikasketak ere, Bruselan eta Kolonian

(Alemania). Apaiztu zen, baina apaizaren eginbideak baino areago beste batzuek erakarri zuten haren arreta behinena. Beste eginbideok, ez bakarrik Euskal Herrian barrena ibiltzea eta egonaldiak egitea galdatu zioten, baita muga horiez gaindikoak ere.

Azkenik, Irazustaren (1884-1952) biografiak kultura handiko abokatua aurkezten du. Madrilgo Gorteetan II. Errepublikan Gipuzkoako diputatu jeltzale izana, 1939an Latinoamerikara erbesteratu zen (Iturralde, 2003). 1944ko abenduan Puerto Ricon amaitutako *Joañixio* argitaratu eta laster, apaiz-ikasketei ekin eta, 1951n eman zuen lehen meza.

Beraz, lau egileetatik, laiko bakarra: Etxeita. Halaber, bakarra da Euskal Herritik inoiz atera gabekoa: Agirre. Baita atzerriratutakoa ere: Irazusta. Orobat, bakarra da, herriminari aipamenik ere egiten ez dion indianoa moldatzen duena, Agirre. Baita ezkongai den emakumea (Jule) Ameriketaratzen duena ere, Etxeita. Gainera, bi joan-etorri egitera behartzen du, horietako bat gurasoen agindua betetzeko: barkazioa eskatu eta maite duen gizonarekin ezkontzeko baimena eskuratu.

Hiru apaizek ez zuten jardun neurri berean eliz lanetan. Agirre, Azkue, Irazusta hurrenkerak adieraziko luke loturarik handienetik txikienerako segida. Azkue apaizak, batez ere, jakintza-alor desberdinak jorratzea izan zuen eginkizun; Irazusta 67 urterekin apaiztu eta urtebetera zendu zen.

Laikoak, mundu zabalean ibilitako Etxeitak, taxutu zituen indianorik laikoenak. Elizaren aginduak nola gordetzen dituzten ez du hartzen hizpide, ez Ardibason, ez Mexikon direnean. Helburu moralizatzailea izanagatik, fedea edo praxi erlijiosoa ez du bihurtzen epaiketa-irizpide. Zuzentzat edo okertzat jotzen dituen jokabideak argi eta garbi mugatuz, portaerak arautzen ditu. Onartzen edo mespretxatzen dituen jarreren arabera sariak eta zigorrak banatuz, jarraibideak erakusten ditu (Toledo, 2015: 535-563). Banaketa horretan bada zigorturik, ez horregatik, jaioterri maitea utzi eta herriminpean bizi izan diren artzainen artean. Diren bezala orbangabeak izanik, saria jasotzen dute.

Ia bizitza osoan laikoa izan zen Irazustak, erbesteratutako bakarrak eta erabaki horrekin J. A. Agirre lehendakariari huts egin izanaren errudun sentitzen zenak[9] eratzen du Ameriketara emigratzeaz damutzen den indiano bakarra: Joañixio.

Apaiz ikasketez bestalde, beste diziplina batzuk ikasi eta landu zituen Azkue ere, munduan zehar ibilitakoa da, bai behintzat Europan. Ez horrela, Agirre. Biek irudikatzen dute Ameriketan egiazko fedea galdutako indianoa, baina Azkuek berrerosten duen bitartean, zigorra ezartzen dio Agirrek. Ardi galdua artegiratuz berrerosten du. Nolanahi ere, aurreikus zitekeen irtenbidea. Sortu dituzten bi indianoak benetako sinesmen bakarretik aldentzen badira ere, gainerako ezaugarriek elkarrengandik banantzen zituzten, batak euskara hobesteak eta besteak gutxiesteak edo, jaioterriko herritarrekin duten lotura desberdinak, salatzen zutenez. Hitz batean,

9. «Jose Antonio Agirre Lehendakari izendatu zuten bezain agudo, honek Irazustari Bilbora etortzeko proposatu zion, bertan bere beharra zegoelako. Jon Andoni Irazusta Latinoamerikarantz itsasoratu zen. Bere bizitza osoan Irazustak uste izan zuen une haietan huts egin zuela eta bere errua nolabait ordaintzearren Euskadira inoiz gehiago ez bueltatzea inposatu zion bere buruari» (Iturralde, 2003: 8-9).

«akats» bat baino ez zeukan Azkueren indianoak, Agirrerenak, aldiz, guztiak. Hala izanik, uste izatekoa zen akats bakar horretatik libratzeko egokiera emango zitzaiola.

8. Ondorioak

Ameriketara bideratzen dituzten zioak partekatzen ez dituzten pertsonaia guztiok dira indiano. Indianoaren bereizgarri da, pilatutako irabaziei esker, itzulitakoan errentetatik bizi ahal izatea. *Kresala*ko indianoa Arranondon lanik gutxien zeukatenekin biltzen da solas egiteko. *Jaioterri Maitia*ko artzainek artzain-abestiak abestuz gozatzen dute. *Ardi galdua*ko Medel Olazarreta ere zoriontsu da beste indiano batzuekin tokan jokatuz edo Leaburuko haurrei ingelesa eta kontuak irakatsiz. *Joañixio*ko Joañixio da aspertzen den bakarra. Joañixiorentzat izan ezik, osterakoentzat, merezi izan du Ameriketara joateak.

Dirudienez, bidaia horrek ereduzko euskaldun izaten jarraitzea eragoz dezake. Atzerri horretako giroaren eraginez, badira katoliko zintzo izatea bertan behera laga dutenak. Gainditu duen batek ere, Joañixiok, eremu babesgabeko bizilagun izateak jarritako oztopoak aipatzen ditu. Lau idazleetatik hiruk heldu zioten gaiari, hiru apaizek, hain zuzen ere; laikoa, Etxeita, da salbuespena.

Erbesteratu zen egileak aurkezten du damutzen den indianoa. Gerra baten zirkunstantziak behartu gabe, beren borondatez munduan zehar ibilitakoek, aitzitik, Ameriketan aberastu ondoren, beren gogara bizitzea oparitzen diete indianoei. Azkenik, bere ingurunetik irten gabekoa da, berriro deserriratzen duena: gehientsuenek irabazi urriak zituzten arranondotarren artean bizi zenean indianoa, haren aurrezkiek herrikideren bat liluratzeko ahalmena izan zezaketen, baina, erakargarri zuen gauza bakarraz desjabetuz, beste behin ere, bizimodua ateratzera Ameriketara bidaltzen du.

Etxeita Manilako alkatetzara iritsi izanak iradokitzen du Euskal Herritik kanpora ibilitako eleberrigileon artean atzerrian integrazio-mailarik handiena jadetsitakoa izan daitekeela. Ez horratik, moldatu zituen indianoak: hango jendearekin ez daukate harremanik Mexikon. Zabaldutako adiskidetasuna euskaldun batengana zedarritzeak ez ezik, hitzartutako ezkontza guztiak —eta batzuk dira— euskaldunen artekoak izateak edo, Euskal Herriratuz doazen heinean, lehenik beren artean eta gero senideen artean azienden kudeaketa lagatzeak, baieztatutakoa berresten dute. Azkue da mugarri horiek igarotzen dituen indianoa itxuratu duen bakarra: bigarren emaztetzat amerikar bat hartzen duen alarguna, amerikar bat «baltzukide» duela hotel bat irekitzen duena.

Indiano guztiak euskaldunak dira: euskara dute ama-hizkuntza. Erosoago sentitzen dira euskaldunen artean, ama-hizkuntza gutxiesten duen *Kresala*ko indianoa, salbu. Noizbait erdararen bat erabiltzea egokitu zaien pertsonaiez dihardutela-eta, zenbait egilek abagunea baliatzen du hizkuntzoi buruz dauzkaten iritziak ezagutarazteko. Kontu horren gainean arituko direnak Agirre eta Azkueren kontakizunetako pertsonaiak dira. Egileen ikuspegia azalduko duten pertsonaiak bat datoz alderdi batean: erdaren premia pertsonaren xedeei lotzean. Hitz batean,

gizartean amesten duten mailari lotzean. Halere, bada ñabardurarik. Agirrek ez bezala, Azkuek, betiere, edonorentzat ere mesedegarritzat joaz, gizarte-geruza orotara hedatzearen alde egiten du. Agirrek nahitaezkotzat ez dutenentzat kaltegarri ere izan daitekeela aditzera ematen du, ereduzko euskalduntzat daukana, ereduzkotasunetik urrunarazteko arrisku moduan ikusten duelako.

Azken batez, lau egileok indiano desberdinak irudikatzen dituzte. Agirrek bigarren mailako pertsonaia aukeratuz, ereduzko euskalduntzat duena nabarmentzeko bitarteko bihurtzen du: arranondotarren prestutasuna azpimarratzeko balio duen «bedar txar» bat da, erbestetik ekarritako haziaz ernetako belar txarra. Beste hiru egileak ez dira horren ezkor, ez ditu horrenbeste beldurtzen atzerriaren eragin gaiztoak. Atzerriak galerak sorraraz ditzake. Etxeitak berak Ameriketan helburua bete ez dutenei tarte labur bat zabaltzen die: abenturan porrot egin dutenak dira. Ardibasoko artzainak berak egoera larrietan sartuko ditu, hori bai, holakoetatik onik ateratzeko laguntza eskainiz. Galerak, Azkueren Medelek eta Irazustaren Joañixiok baino ez dituzte pairatzen. Eraman zuen fedea galdu lehenak, egun on bakar batez ez gozatu izana bigarrenak. Joañixiok fedea gorde arren, inguruneak jarritako zailtasunak ezagutarazten ditu.

Fede-aldaketa gorabehera eta herrimina herrimin, Kalifornian gustura bizi izan zen indianoa aurkezten du Azkuek; Irazustak, berriz, Panpara moldatu ez zena. Bizipenen arteko aldeok direla-eta, pertsonaiok ezin balorazio berdina egin. Batak ezin berreskura dezake galdutakoa; ezin lehengoratu eta gaztaroko erabakia aldatu. Galera berreskuraezin duen Joañixiok ez bezala, Leaburun egindako misioetan Medel Olazarretak fedea berreskuratzean, galdua zuena berraurkitzen du.

Laburbilduz, Azkuek eratzen du indianorik irekiena; Medel Olazarretak beste komunitate bateko kideekin egitasmoak partekatzen ditu, euskal komunitatekoak ez direnekin ere eroso sentitzen da: amerikarrekin nahasten da, gehien integratzen den indianoa da. Osterantzeko indianoentzat lantoki baino ez da izan Amerika: irabazien etekinekin ahalik eta azkarren Euskal Herriratzea erdietsi.

Emigrante legez bertaratu zena, itzuli ondoren jaioterrian gizarteratzen da. *Kresala*ko indianoa Arranondon zeregin gutxien zeukaten pertsonaia jakin batzuekin baino ez da elkartzen. Ardibasoko artzainek aberastu aurreko zaletasunarekin jarraitzen dute. *Joañixio*ko Joañixio isolatu samarrik bizi da Tolosan: sortu duen familia baino ez du euskarri. Indiano talde honetan *Ardi galdua*ko Medel Olazarreta da leaburuarren artean leku berri bat hartzen duena. Bere fede protestanteak eragindako esamesak amaitu dira misioek katolikotasunera ekarri dutenean. Testuinguru horretan eginkizun bati heltzen dio: irakasle izateari, Leaburuko haurrei ingelesa eta kontuak erakusteaz arduratuko baita. Hitz batean, etorkizuna daukatenei etorkizuneko irtenbideen eremua hedatzeko aukera ematen ari zaie. Ikasitakoa komunitateari transmititzen dihardu. Medel da komunitateari begira jartzen den indiano bakarra; gainerakoek norbere zaletasun eta bizimodura biltzen dute arreta. Gisa horretan, Medel Olazarreta ez da bakarrik urruntzen Agirreren pentsamendua adierazten duen itsas agintari zaharrak erbestetik ekarritako haziaz ernetako belar txartzat jotzen zuen indianotik, baita osterantzekoetatik ere, hauek

Ameriketarako joan-etorriaren emaitzak (batzuentzat irabaziak, beste batentzat galerak) maila pribatura mugatzen dutelako. Horrela, bada, Azkue da euskaldunari mundura zabaltzeko gonbita luzatzen dion bakarra.

Bibliografia

Agirre, D. (1898): *Auñemendiko Lorea*, Euskalzalen moldagintzan, Bilbo.

————, (1906): *Kresala*, in L. Villasante, (ed.) (1976), *Kresala*, Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, Oñati.

————, (1912): *Garoa*, Florentino Elosu-ren echean, Durango.

Apaolaza, A. (1890): *Pachicu Cherren,* in J. San Martin, (ed.) (1962), *Patxiko Txerren*, Auspoa Liburutegia 8, Tolosa.

Azkue, R.M. (1893): *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko*, Imprenta de la Casa de Misericordia, Bilbao.

————, (1918): *Ardi galdua*, Jesusen Biotzaren elaztegian, Bilbo.

Barbier, J. (1926): *Piarres I*, S. Sordes, Baiona.

————, (1929): *Piarres II*, S. Sordes, Baiona.

Barrensoro (Agirre, T.) (1937): *Uztaro*, Editorial Vasca, Bilbo.

Dubois, J. eta beste (1982): *Rhétorique générale*, Editions du Seuil, Paris.

Etxaide, Y. (1955): *Joanak joan*, Itxaropena, Zarautz.

Etxeita, J.M. (1909): *Josecho,* in A. Arejita eta A. Etxebarria, (ed.) (1982), *Josetxo*, Labayru Ikastegia, Bilbo.

————, 1910, *Jaioterri Maitia*, in I. Sarriugarte (ed.) (1988), *Jaioterri Maitia*, Labayru Ikastegia, Bilbo.

Iratchet, J.P. (1946): *Antton*, in P. Urkizu (ed.) (1990), *Antton*, Etor, Donostia.

Irazusta'tar, J.A. (1946): *Joañixio*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires.

————, (1950): *Bizia garratza da*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires.

Iturralde, J.M. (2003): *Jon Andoni Irazusta (1884-1952)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

Lertxundi, J.M. (1910): *Polli ta Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira*, J. Baroja ta Semeen moldiztegia, Donostia.

Loidi Bizkarrondo, J.A. (1955): *Amabost egun Urgain'en*, Itxaropena, Zarautz.

Olaziregi, M.J. (2015): «Literatura vasca y emigración: la representación de América en la narrativa vasca», in J.C. Cruz Suarez, H. Lauge Hansen eta A. Sánchez Cuervo (ed.), *La memoria novelada.* III, *memoria transnacional y anhelos de justicia*, Peter Lang, Berna, 319-332.

Toledo Lezeta, A.M. (2015): «J. M. Etxeitaren *Jaioterri Maitia* (1910): Ardibasotik Ardibasorako joan-etorria», *Euskera*, **60:2,** 535-563.

Trueba, A. de (1863): *El Judas de la casa*, Imp. «El Comercio», C/ Ayllon (Madril?).

Txillardegi (Alvarez Emparanza, J.L.) (1957): *Leturia-ren egunkari ezkutua*, Euskal Idazlanak, Bilbo.

Urkizu, P. (1990): «Aitzin-solas», in J.P. Iratchet, *Antton*, Etor, Donostia, 7-9.